

Legazpiko Agenda 21eko Foroa



2013ko ekainaren 6ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean, arratsaldeko 18:30etik 20:15era egindako tailerra

Gaiak:

1. Legazpiko iraunkortasun-adierazleen emaitzak.
2. Hirigintza arloan, Udalak mahai gainean dituen proiektu nagusiak.
3. Katalogatutako Legazpiko ondarea zaintzeko eta gordetzeko Plana.

Laster udako atsedenaldia hartuko dugu eta gaur ikasturte honetan azkeneko tailerra egin dugu. Ondoko hauek elkartu gara:

Iñaki Mauleon (Domingo Agirre) • Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Montse Vallejo • Eugenio Gil (Korosti Zikloturistak) • Lurdes Etxaniz (Eiluz) • Jokin Zabala • Maite Lonbide • Juan Pedro Agirre • Cruz Oroz • M^a Cruz Lizarazu • Pilar Makibar • Feli Nuñez • Ane Mendinueta (Legazpiko Udaleko arkitektoa) • Inma Hernandez (Legazpiko Udaleko Agenda 21eko teknikaria) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea taldekoak.

... eta gurekin egon dira Oilar jokoaren doinua eta festara hurbildu nahi izan duen euria...

Ikus ditzagun jarraian, gaur aztertu ditugun gaiak eta haien zehaztasunak.



Gaiak: adierazleak, hirigintza-proiektuak eta katalogatutako Legazpiko ondarea zaintzeko eta gordetzeko plana









1. Iraunkortasun adierazleak Legazpin: nola gaude?

Inma Hernandez Agenda 21eko teknikariak iraunkortasun adierazle nagusiek Legazpin izan duten bilakaera azaldu du. Adierazle horiek urtero berrikusi eta aztertzen dira, Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren barruan.

Hona hemen, 2011ko datuekin, aukeratutako adierazle nagusien irudi grafikoa:

Iraunkortasun adierazleak Legazpi 2011	
	Bidegorrien sarea hobetu egin da; dagoeneko 5,4 km daude eginda.
	5.489 ibilgailu ditugu 8.682 biztanleentzako. Kopuru hori egonkortu egin da eta ibilgailu txikiagoak eta potentzia gutxiagoak erosten ditugu.
	Etxean eguneko 99,5 litro ur biztanleko gastatzen dugu. Batez bestekoaren azpitik gaude (114 litro).
	Legazpi urtero ur gutxiago kontsumitzen du. Hori berri ona da baina badakigu neurri handi batean krisiaren ondorioz enpresetan ur gutxiago erabiltzen delako dela.
	Ura banatzeko sarean zeuden ur jarioak gutxitu egin dira eta beste udalerrietan ematen direnak baino gutxiago dira.

Iraunkortasun adierazleak Legazpi 2011

	Energia berriztagarri gehiago ekoizten dugu baina oraindik oso gutxi.
	Krisi garai honetan zabor gutxiago sortzen dugu: 1,1 kg biztanleko eta eguneko. Zer gertatuko da gero?
	Hondakinen % 32,7 birziklatzen dugu. Ez dugu 2010erako helburu gisa ezarri genuen % 35ekoa lortu.
	Legazpin ingurumenarekin lotutako ekintza asko antolatzen dira: Autonomia Erkidegoaren batez bestekoaren bikoitza.
	Agenda 21eko herritarren parte hartze Foroa urtean 9 aldiz biltzen da.
	2007tik hona nabarmen gora egin du langabeziaren tasa eta gaur egun % 11,7koa da tasa hori. Emakumezkoena 2,5 puntu altuagoa da.
	Krisia hasi aurretik 19 familia ziren diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zutenak. 2012ko amaieran 89 ziren.
	Legazpiko herritarren % 22,70ak 65 urte baino gehiago ditu.

Nola jaso ditu datuak taldeak eta zein da egin duen hausnarketa? Deigarri gertatu zaizkigun zenbait datu:

- **Krisiaren eragina adierazleen bilakaeran:** krisiaren ondorioz hobetu egin dira ingurumen arloko zenbait adierazle (hala nola, uraren eta energiaren kontsumoa eta hondakinen sorrera) baina okerrera egin dute datu sozioekonomikoak (langabeziaren tasa, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familiak (DBE)...).

Eta hemen zalantza sortzen zaigu: zer gertatuko da testuinguru sozioekonomikoak hobera egingo duenean? Berrito okerrera egingo dute ingurumen arloko adierazleek ala dagoeneko gureganatuta izango ditugu iraunkortasunaren aldeko azturak?

- **Uraren kontsumoa:** datu positiboa izan arren, zenbatekoa da familia arrunt batean!
- **Diru-laguntzak jasotzen dituen familia-kopurua** (DBE edo beste batzuk): datu kezagarria da.

2. Hirigintza arloan, Udalak mahai gainean dituen proiektu nagusiak: zeintzuk dira?, nola edo zertan aberats ditzakegu horiek?

Urte hasieran, Foroarekin landu genituen inbertsio-lanen proposamena eta horietatik zeintzuk lehenetsiko ziren aztertu zen. Horren harira, Legazpiko Udala 3 proiektu ari da lantzen eta taldearekin kontrastatu nahi ditu. Hauek dira proiektuak:

- **Bidegorria Legazpiko hirigunetik Zumarraga aldera, Urola kalean zehar.**
- **Nafarroa kalea oinezkoentzat egokitzea.**
- **“Serenako aldapan” esku hartzea (Santikutz).**



Ane Mendinueta udal arkitektoak zehatz-mehatz azaldu dizkigu orain arte egindako lanen zirriborroak. Segidan, eta taldetan banatuta, proiektu horien azken garapenean aintzat hartu beharreko zenbait kontu proposatu ditugu. Kontu horiek tailer honek egindako ekarpenak dira eta Udalak bere proiektuetan txertatuko ditu. Ikus dezagun!




- **Bidegorria Legazpiko hirigunetik Zumarraga aldera, Urola kalean zehar**

Hauxe da helburua: espaloia egokituz Urretxu-Zumarragatik datorren bidegorriari jarraipena ematea da eta lantegiak zeharkatzean istripu-arriskua murriztea. Bertatik ibil daitezkeen bizikletek GSB eta Bellota enpresetatik ateratzen diren langileak harrapa ez ditzatela da helburua, izan ere enpresa horietako ateez zuzenean ematen dute bidegorrira.

Horretarako hainbat neurri hartzea proposatu da: seinaleak jarri, hesiak jarri,...



ESQUEMA EN PUNTO 4
ESCALA = 1:100



Zer dio Foroak? Ba al du proposamenen bat?

- Proposamena egokia ikusi da. Oso ondo ikusi da oinezkoen lehentasuna ematea.

- Nafarroa kalea oinezkoentzako egokitzea

Helburua kalea oinezkoentzako egokitzea da, bertako irisgarritasuna hobetuz eta lurpeko azpiegitura guztiak berrituz (hornidurako eta saneamenduko hodiak).

Kalearen zorua maila berean jartzea proposatu da, gune batzuetan eserlekuak jarriko dira, LED argiak jarriko dira,....

Eta horrezaz gain, eta Kale Nagusian momentuz obrarik egingo ez den arren, planoan zehaztu den oinezkoen pasabidea jarriko da eta espaloiak leunduko dira ez-labaingarriak izan daitezzen.



Zer dio Foroak?

- Proposamen egokia dela uste du Foroak.


Ba al du Foroak kontuan hartzeko proposamenen bat?

- Txomineko pasabidea ere egokitzea komeni da, batik bat garbitasunari eta argitasunari dagokionez (garbitasuna batez ere).
- Bertan garajeak dituztenen sarrera-irteerak nola arautuko den ongi aztertzea komeni da.
- Hiri-altzari sendoak aukeratu bertan jartzeko (lore-ontziak, eserlekuak...).

- “Serenako aldapa” (Santikutz).

Helburua irisgarritasuna hobetzea da. Kalearen tarte horretan oinezkoen mugikortasuna hobetzea da.

Eta horretarako hona hemen proposamen batzuk: zorua maila berean, asfaltoa ez den zorua jartzea, Kale Nagusiarekin bidegurutzean plazatxo bat oinezkoentzako.....



Zer dio Foroak?

- Proposamen egokia dela eta gaur egun aldapa horretan dagoen arriskuari erantzuten diola pentsatzen du Foroak.

Ba al du Foroak kontuan hartzeko proposamenen bat?

- Proiektuan aldaparen behealdean dagoen eta planoan ageri ez den oinezkoentzako pasabidea sartzea. Pasabide hori txukundu beharra dago.
- Horrezaz gain, udalerrri osoan 30 Area (edo agian 20 Area) ezar dadila bultzatu behar dugu, bertan elkarrekin segurtasunez bizi ahal daitezen ibilgailuak, bizikletak, oinezkoak, ...
- Behealdean ageri den bidegurutze-plazari ematen zaion tratamendua hobetzea. Taldeari zaila egin zaio gune horren funtzionamendua ulertzea.

Beraz, laburtuz,... taldeak "ikusi" egiten ditu zirriborroak eta hobetu egin ditu hainbat zehaztasunekin.... Bikain aritu zarete!

Ah, eta Foroko kideen ustez berehalako erantzuna eskatzen duen puntu beltz bat jasotzen dugu: Txorronean ibilgailuen eta bizikleten artean sortzen diren arazoak. Jasota geratzen da!

Segidan, azkeneko puntua aztertzeari ekingo diogu.

3. Katalogatutako Legazpiko ondarea zaintzeko eta gordetzeko plana.

Ane Mendinuetak Udalak martxan jarri duen proiektu berri honen ezaugarriak adierazi dizkigu.



Zer da eta zer lortu nahi da katalogatutako Legazpiko ondarea zaintzeko eta gordetzeko planarekin? Modu errazean eta hitz gutxiekin esango dugu:

- **Legazpiko ondarea aztertzea**, paisaia kulturala eta elementu identitarioa den aldetik: zeintzuk dira elementu interesgarriak?, ze balio dute?...
- **Ondare hori ezagutzera eman eta behar bezala baloratzea.**
Ondare hori ez da hemen ezaguna baina estatu mailan interesgarriak diren 100 elementuen artean dago (beste batzuekin batera: Añanako gatzaga, Portugaleteko zubi esekia,...).
- **Ondarea berpiztea eta hari etorkizuna ematea da planaren helburuak.**
Ez da "fosildu" nahi; aitzitik, zer egiten dugu guzti horrekin? Nola egokitu gaurko egunera?
Hona hemen adibide batzuk: San Ignazio auzoa hirigintza-eremuetan eredugarriak diren hiri-paisaia eta etxebizitzak daude, nola bultzatu auzo horren iraunaraztea eta egokitzapena? Eta industria-eraikinei dagokienez, nola egokitu haiek eta erabilera desberdinak bultzatu, jabeekin adostasunak lortuz?

Udala aspalditxo ari da inplikaturako agente desberdinekin batera planaren zirriborroa lantzen. Eta irailaren bukaerarako hasiera batean onar daitekeen dokumentua eginda izatea da helburua, modu horretan aipatu plana urtea bukatu baino lehen onartuta egon dadin.

Eta Foroak, zer dio ekimen honi buruz? **Ilusiz beterik hartu du!**

“ Ba al zenekien horrelako altxorra zenutela Legazpin?
Zertxobait sumatzen genuen...
Eta Plana garrantzitsua izan daiteke ondare hori behar bezala
kontserbatzeko, izan are San Ignazio bezalako auzoetan
“modernizatze” jardun izan denean, galdu egin dira balio
handiko elementu identitario batzuk ”



Hausnarketa horrekin geratzen gara!

Eta bukatzeko 4 ohar...

- **Ekainaren 8an y 19an**, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, Gizarte-zentroan: **“Hirigintza generoaren ikuspegitik” izeneko tailerrak**.

Tailerren helburua hau da: hirigintza irizpideak generoaren ikuspegitik lantzea ondoren, horiek aintzat har ditzagun Legazpiko udal planeamendua berrikusteko ordua iristen denean. Interes duen edonork (eta ez emakumeak bakarrik) har dezake parte baina ezinbestekoa da udaletxean izena ematea.

- **Ekainaren 28an**, 18:00etatik a 20:30era, Euskal Herria plazan: **“NatUrola, nik berdez zuk nola?” jardunaldia**.

Gure eguneroko azturek eragina dute biodibertsitatean eta gai horren gainean tailerrak antolatu dira hori erakusteko.

- **Ekainaren 1etik 10era**: **“Puntu berdea, non ote?” kanpaina**, Legazpin saltzen diren produktu bereak ezagutzera emateko.

14 dendek hartuko dute parte euren produktuekin. Eta ekainaren 7an kalera aterako dituzte produktu horiek.



- **Olazabal institutua, “Eskola iraunkorra”**.

Oraintsu jaso du titulua Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Zorionak!

... eta gogo bat!

Goza ezazue uda (iristen denean...), pilak kargatu eta itzultzean elkar ikusiko dugu!



Irailaren 26an, zain izango gaituzu!

Mila mila esker eta gozatu uda!